

ALKATEARI

Talde Popularreko zinegotzi Vanesa Vélez De Pablosek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean Errondo pasealekuko trenbidea lurperatzeari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Mugikortasuneko ordezkariak Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) ziurtatu zuen duela aste batzuk Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Jasangarrirako sailburuarekin bildu zela, eta, besteak beste, Amarako bizilagunei konponbide bat emateko beharraz jardun zutela, Topoak zarata ateratzen duela eta, baina bibrazio-arazoak alde batera utzi zituztela.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Udaleko Osoko Bilkurak gobernu-taldeari eskatzen dio parte hartzeko prozesu bat egin dezala eta hortik ateratakoaren arabera konpondu ditzala Topoak Amaran sortzen dituen bi arazoak, zaratarena eta bibrazioarena.
2. Udaleko Osoko Bilkurak gobernu-taldeari eskatzen dio Tysa enpresak egindako txostenarekin lan egin dezala eta eska dezala aukera guztiak gauzatzeko beharrezkoak diren aurrekontuak eguneratzeko.

PP Talde Politikoa Grupo Político PP

Ijentea, 1 | Tel. 943481707 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

3. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu-taldeari eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari adieraz diezaiola Amarako salgaien saihesbiderako aurreikusitako urte anitzeko partida handitu beharra dagoela, Easo-Anoeta tartea konpontzeko behar den zenbatekoa gehituta.

Donostian, 2025eko abenduaren 12an

Vanesa Vélez De Pablos
Udal Talde Popularreko zinegotzia